

BALIO PROPOSAMENAK

Atal honetan, Canada S.A.-k eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuei esker segmentu ezberdinek lortzen duen balioa aztertuko dugu.

Canada S.A enpresaren balio proposamenaren helburua, bezeroaren arazo bat konpontzea edo behar bat asetzea da. Gure kasuan, bezeroei zerbitzuak eskainiko dizkiegu, bai salmenta aurreko zerbitzuak (edozein zalantzaren aurrean), baita salmenta ondorengo konponketa-zerbitzuak (arazoren bat badago produktuarekin) ere. Salmenta ondorengo zerbitzu hauek, telefonoz egin daitezke (tlf: 943 72 85 96) eta salmenta aurrekoak, enpresaren web-gunean galderak zintzilikatuz.



Zenbat aldiz gertatu zaizu etxetik atera, eta mugikorra bateriarik gabe geratzea? Egoera honen aurrean, gure erloju digitaletan, edozein lekutan egonda ere, mugikorra kargatzeko aukera ematen dute.


Balio proposamena modu kualitatiboan emango da. Eskaintzen dugun produktuaren faktore garrantzitsuen artean, kalitatezkoa dela eta haren materialak jasangarriak direla da (**Rainforest Alliance Certified** ziurtagiria daukate). Ziurtagiri honi esker, gure produktuak karbono-aztarna gutxitzen duela ziurtatzen ari da. Etiketa hori lortzeko, ekoizleek ikuskapen bat egin behar izan dute fabriketan, ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren iraunkortasunari buruzko arauak betetzen dituela ziurtatzeko.



Bestalde, gizarterako produktu berritzailea da; ez dago horrelakorik eskaintzen duen beste enpresarik baina agertuko balitz, prezioa baxuagoa izango da, eskuragarritasuna denoi

zabaltzeko. Beraz, balio proposamena ere modu kuantitatiboan emango da. Horrez gain, erlojuak pertsonalizagarriak izango dira, hau da, kolorea, tamaina, forma... bezeroak diseinatzeko aukera izango du.

Gainera, bezero orori urte beteko bermea eskainiko zaio produktu bakoitzeko. Horrela, produktuak edozein akats badu, beste batengatik aldatzea edo konpontzea ahalbidetuko zaio.



Bezeroari asetzen zaion beste behar bat, erosotasuna da. Izan ere, produktu honen bidez, mugikorra kargatzeko ez da etxean korronteari konektatuta egon behar. Edonon egonda ere, erlojuaz baliatuz, sakelakoa kargatzeko aukera edukiko du erabiltzaileak.